

LAPURRETA: INBENTARIOA

Metrotik atera nintzenean, tabernara jo nuen zuzenean. Ohiko parrokia topatzea espero nuen; *Txarrikorta* ez da bezero berriak erakartzen dituen txabiske horietakoa, eta hortik igarotzen diren ia-ia guztiak izenez, gaitzizenez edo, besterik gabe, ikusiaren ikusiz ezagutzen ditudala esan nezake. Horregatik, ezusteko handi samarra hartu nuen Josu barraren kontra ikusi nuenean.

-Ostia, Josu! Aspaldiko! Zer egiten duk hemen, iparraldeko paraje galdu hauetan? Ez haiz ezertan ere aldatu, txo!

Ez zen egia. Garai bateko kalpar sarri haiek soiltzen hasiak zituen Josuk, aurpegiko azala zimurtuta, betazpiak puztuta, eta sabelaldean tripa susmagarriro biribildua sumatzen zitzaion. Baina gizalegeak agintzen zuenera men egitea hobe zela pentsatu nuen; azken finean, ziur nengoen neuk ere ez nuela irudi hoberik emango haren begien aurrean. Denboraren iraganak utziak zituen bere aztarnak aspaldi ikusi gabeko lagun zaharraren soinean, eta ez neukan arrazoirik pentsatzeko nigan ez zuela efektu berdina, edo are okerragoa, izan.

-Asteburu pasa etorri nauk. Umeekin egotera, badakik. Eta, bide batez, burua apur bat egurastera, ze arraio. Madril itogarria duk, eta arnas pixka bat hartzea komeni...

-Bai ba, ezagutzen ditiat nik hire arnasaldiak!

Zorte txarra izan zuen Josuk. Edo hala uste du berak. Josu, gure heroia, kalimotxo gehien edaten zuena, speed gehien hartzen zuena, gaupasarik luzeenak egiten zituena, Euskal Herriko geografia osoko festa guztietan egondakoa, manifestazioetan beti lehenengo lerroan txakurrei harrika ibiltzen zena. Ezkondu zenean, bizimodua erabat aldatu zitzaion. Ontzian hasi zen beharrez, bi ume izan zituen bata bestearen atzetik, etxebizitza polit bat erosi zuen herriko erdigunean, errutinaz beteriko bizimoduari lotu zitzaion. Laster hasi zen horretaz aspertzen: gazte garaiko parranda amaigabeak faltan sumatzen zituen, nahi zuen moduan ibiltzeko askatasuna, egutegirik eta ordutegirik gabeko bizimodu hura zuen ments.

Balna norbaitek esan zuen kontuz ibili behar dela ametsekin, errealtate bilaka daitezkeelako, eta horixe gertatu zitzaion Josuri. Oso denbora laburrean, bere bizitza aspergarriaren zutabe guztiak desegiten joan ziren: lanik gabe gelditu zen ontziola itxi zutenean, emaztearekiko harremana izugarri gaiztotu zen elkarrengandik banatu ziren arte, eta, hortaz, etxetik kanpo eta umeak ikusteko zailtasun ikaragarrieekin kausitu zuen bere burua luze gabe. Orduan konturatu zen lehen morrontza jasanezin begitantzen zitzaizkionak zirela bere zorientasun apurraren oinarri. Madriler a egin zuen ihes, "bizitza berregitera", berak dioen moduan. Erdizka lortu omen du: orain lana badauka, bizimodua aldi baterako kontratuak bata bestearen atzetik kateatuz ateratzen badu ere, eta "neska batekin ibiltzen" hasia da, berrogeitaka urteko emakumeari neska esatea zilegi bada. Halaxe esan zidan, niretzat garagardo bat eta beretzat gin tonic-a eskatzen zituen bitartean.

-Orain ez duk kalimotxorik edaten?

-Ez, motel, Madrileko dantzalekuetan ibilita bestelakoak edatera ohitu nauk.

-Eta zerk ekarri hau *Txarrikortara*? –ziur nengoen erantzuna banekiela, baina hala ere, galdetzera deliberatu nintzen.

-Bada, herrian nagoenez gero, parrandatxo bat behar bezala egitekotan irin apur bat eskuratzea komeni zela bururatu zaidak, baina hemengo martxaren berri aspalditik

zeukaat zeharo galduta, eta hona etorri nauk ea kasualitatez ezagunen bat ikusten dudana. Hik beharbada lagundu ahal izango didak horretan...

-Gaur zorionekoa haiz antza, neu ere hautsa erosteko asmoz etorri nauk-eta. Niri saltzen didana ez duk oraindik agertu, baina taberna honetara askotan etortzen duk eta ez diat uste asko berandutuko denik. Nahi baduk, erdibana egingo diagu. Gramo erdia biontzat ondo iruditzen zaik?

-Nigatik, ondo zagok.

Farlopa saltzailea ez zela asko berandutuko esana nuen arestian. Oker nengoen, jakina. Beti berandutzen dira. Beti dago itxaron beharra. Baina tira, Josurekin nengoen, eta harekin, normalean ez da aspertzerik egoten.

-Beno, eta hi, zelan tratatzen hau bizitzak? Zelan dago Edurne?

Hasperen egin nuen.

-Ondo, suposatzen diat. Ez diat askorik ikusten. Dagoeneko ez gaituk elkarrekin bizi.

-Ostia, ez nekien ezer! Askok sentitzen diat.

-Lasai, ez zagok gauza handirik sentitzeko. Denak izaten dik akabera, batez ere, ona denean. Bolada batean izorratu samar ibili ninduan, baina dagoeneko pasa duk.

- Benetan, emakumeak ulertuko dituen amaren semerik ez zagok, txo. Sorgin hutsak dituk guztiak.

Barre txikia egin nuen nire kautan. Garai batean, Josuk eta biok ez genuen inoiz hutsik egiten martxoaren zortziko manifestazioetan. Gazte engaiatuak ginen, munduko edozein injustizia norberari egindakoa bezala sentitzen duten horietakoak, edo hori pentsatu nahi genuen. Eta orain han geunden, zurrutean eta emakumeen gainean gaizki esaka, gure zaharrek egiten zuten antzera. Nola zen esaldi hura, azkenean gehien gorroto duzun hori bilakatzen zarela zioena?

Hitz eta pitz aritu ginen, garagardoak eta gin-tonicak bata bestearen atzetik eztarriraten genituen bitartean. Berba egiteko gogoz zegoen Josu: neska lagun berriaz, laneko kontuez, Madrileko gau giroa ful hutsa zela baina azkenean, ze erremedio, dantzalekuetara ohitzen ari zela eta ez zuela hain gaizki pasatzen. Hori bai, kotxean jarraitzen zuen Hertzainak, La Polla eta enparauen diskoak entzuten. Kotxe berria erosi zuenean, horrexek gogaitu zuen, antza: euskal taldeen kasete zaharrak erretiratu behar izateak. Kotxe berria eman ziotenean, egin omen zuen lehenengo gauza izan zen Callaoko FNACera joan eta rock erradikaleko euskal taldeen disko guztiak, edo berak kaseteetan grabatuta zituenak behintzak, CD euskarrian batera erostea. Garai bateko oroitzapen mordoa ekartzen ei zioten kantu horiek guztiek.

-Taldea asko saiatu duk, baina garai hartako musika bezalakorik ez dik inork egin, ez orduan, ezta geroago ere.

-Ez zekiat ba. Zer gura duk esatea... Ez diat ezetzik esango, baina ni asper-asper eginda bukatu ninduan roilo hartaz. Bai, putamadreko taldeak zituan haiek guztiak, baina... Bizitza puta osoa gauza bera entzuten eman behar izatea ere... Urte haietan betekada ederra hartu nian, eta orain oso dosi txikietan toleratzen diat.

-Hi moderno ostia bat izan haiz beti.

-Dantzalekuetara ez nauk joaten behintzat.

-Kaka hiretzat.

Munduaren akaberaren bezperan bageunde bezala hurrupatzen zituen Josuk gin-tonicak, eta ni apur bat zizpatzen hasita nengoen. Eta Patas putakume hori ez zen inondik agertzen. Zenbat eta gehiago behar, orduan eta beranduago agertzen dira gameluak; idatzi gabeko araua da, baina beti betetzen dena.

Horrelako pentsamenduetan nenbilen Patasen irudi malapartatua atletik sartzen ikusi nuenean. Agudo jo ninduen begiz, eta bekainen mugimendu azkar bat nahikoa izan zitzaidan erosi nahian nenbilela adierazteko. Barraren kontra paratu zen, harengana hurbildu nintzen eta segituan egin genuen bisnesa.

Beste taberna batera joan ginen materiala dastatzera. Ez dakit zergatik, baina beti iruditu zait gustu txarreko keinua dela droga erosi eta taberna berean, saltzailea oraindik bertan dagoela, komunera korrika eta presaka joatea hauts erosi berriak sudurreratzera. Ematen du *dealerrari* adierazten diozula, nahiz eta egia ez izan, irrika bizian zaudela eta erosketa probatu arteko onik ez duzula izango. Zure ahuleziaren berri ematen diozula, alegia. Eta hori ez da ona, ezta txukuna ere. Nik nahiago dut patxadaz hartu, ezaxolatiarena egin eta dastaketa hurrengorako uztea.

Horixe egin genuen. Handik hurbil zegoen pub batean sartu ginen, eta Josuk edariak eskatzen zituen bitartean, komunera abiatu nintzen angula pare bat marraztera. Ezeren laguntzarik gabe ere berba egiteko gogoz zegoen Josu, eta orain, kokak akuilatuta, bazirudien haren berba-jarioak ez zuela etenik izango. Nik ere nabaritu nuen zintzurretik behera zihoakidan ore mingotsak mingaina askatzen zidala.

-Bazuan denbora dezente ez nintzela hona bisitan etortzen, eta, egia esan behar badiat, oso aldatuta ikusi ditiat bazterrak.

-Aldatuta baino gehiago. Hura amaitu zuan, txo. Beste hiri batean bizi gaituk orain. Beste mundu batean, zuzen esanda.

-Ez duk hainbesterako izango.

Bazen, bai. Edo niri hala zela begitantzen zitzaidan behintzat. Gure belaunaldia lantegi handi haien arrimuan hazi zen, porlanez eta asfaltoz egindako oihan hartan, tximinia erraldietatik zerizkien su-lama urdinxkak miresten. Errekara jaisten ginen ur gaina pozoitzen zuten petrolio orbanei harrika egitera, hondakindegia arakutzen genituen plastiko, egur zati eta xafla herdoilduen xerka, eta haiekin etxolak eraikitzen genituen amoniakoak eta sufreak erretako belazeetan. Eta iluntzen zuenean, jolasak amaitu eta kale estu desolatuetan barrena itzultzen ginen etxera, arrain frijitu usaineko sukalde proletarioan afaltzera, eskolan agindutako etxerako lanak egin ez izanaren damu txikia gogoan.

Zikina eta itsusia izan zen gure umetako ametsak moldatu zituen paisaia. Baina gurea zen. Geure-geurea, gure gurasoen izerdi eta nekeari esker eraikia, aberastasun iturri agortezina, aberastasun hori inoiz gugana iritsi ez bazen ere. Harro geunden lantegien lurralde horretakoak izateaz.

Gero, Gobernuak "industria birmoldaketa" deitu zuen hori iritsi zen. Lantegiak itxi zituzten, tximiniak amatatu, industria pabiloila eraitsi, langileak kale gorrian utzi.

Gu ordurako umeak izateari utziak ginen, eta burua askatasun ametsez beterik genuen. Gazte managaitzak ginen, matxino eta bihurriak, eta zerbaiten xerka genbiltzan, hura zer zen oso ondo ez genekien arren. Batzuek rock'n'rollean aurkitu uste zuten bilatzen zuten hori, iraultzan beste batzuek, drogan ere batek baino gehiagok, baina, gehienontzat, hiru horien nahasketa izan zen gaztaroa.

Eta oldartu ginen, eskura genuen guztiarekin oldartu ere. Gure bizitzeko jarrera, egunerokoari buru egiteko gure modua oldarraldi etengabea baino ez zen. Boterearen kontra, gurasoen kontra, munduaren kontra.

-68ko maiatzean Parisen egon zirela dioten burgeskumeen antzera egiten duk berba.

Ez dakit. Dakidan bakarra da eskualde honentzat prestaturik zuten birmoldaketa ostia hori gelditzerik ez genuela izan. Espero zuten bezala atera zitzaien dena. Industria eraitsi zuten, eta, horrekin, garai hartan gazte ginenoi etorkizuna lapurtu ziguten. Hori baino larriagoa dena: etorkizuna ez ezik, iragana ere ostu ziguten. Gure oroimena, gure paisaia, gure umetako jolasen agertokia, inoiz herri langilea izan ginelako gomuta ere ebatsi ziguten lotsagabeki.

Lantegien ordeztu, saltoki handiak eraiki zituzten, aparkalekuak, azokak eta biltzarrak egiteko areto erraldoiak, altzari dendak. Hirugarren sektorea esaten diote horri. Zerbitzuak. Langileak izatetik zerbitzariak izatera pasa ginen.

Beste taberna batera joan ginen. Han paperak trukatu genituen. Nik edariak eskatu nituen, eta Josu txizatokira abiatu zen, komuneko lanak egitera. Handik atera zenean, neu sartu nintzen. Ostia. Kabroi honek segitzen du arraia lodiak egiten. Horretan behintzat ez da batere aldatu.

Sudurra igurtziz atera nintzen handik. Josu barran zegoen, gin tonic-aren basoa erdi hutsik.

-Karrankak zabalik segitzen dik?

Muturra okertu nuen.

-Baietz uste diat. Urteak dituk ez naizela handik pasatzen.

-Goazemak.

-Josu, mesedez. Benetan joan nahi duk kobazulo horretara? Seguru nagok oraindik dabilzala Kortaturen zinta zahar harekin bueltaka.

-Hobeto. Garai zaharreatatik, txo. Nik gustura entzungo nitek orduko musika apur bat. Jakina, hik atzerrian bizi behar izatea zen den ez dakik-eta! Benga, ez izan memeloa, goazemak Karrankara.

Karranka. Seguru asko, 80etako hamarraldian ordu gehiago eman nituen taberna horretan nire etxeko ohean baino. Hango horma kez belztuak, kartel horituak eta komunetako grafiti lizunak nire logela baino hobeto ezagutzen nituen behintzat. Karranka genuen kaserna nagusi, salerosketa debekatuetarako azoka, konspirazio guztietako babesleku. Gero, ez dakit oso ondo zergatik, hara joateari utzi genion. Beharbada, nerabezaroarekin gehiegi identifikatzen genuen txabiske hura, gainditutzat jotzen genuen garai eta bizimoduarekin. Berezo zahar gehienak galdu, gazterik erakarri ez, eta iraganean harrapatuta gelditu zen taberna, historiaurreko aztarna baten gisa, dinosauroek lokatsetan utzitako lorratzen antzo. Garai hartako musika jartzen jarraitzen zuten, eta ziur nago hormetan orduko kartelak dauzkatela oraindik ere. Ez neukan hara joateko inolako gogorik, baina ordurako hauts eta alkohol nahikoa ari zen nire odol zirkulazioan barrena nabigatzen, eta ez nuen ezetarik esateko indarrik izan.

Normalean, Karrankaren aurretik pasatzen naizenean, depresioak jotzen nau eta handik arrapaladan ihes egin behar izaten dut. Tabernara sartu ginenean ere nabaritu nuen beheraldi moduko batek harrapatzen ninduela, baina Josu aldamenen neukan eta ezin lasterka atera. Nire susmo guztiak baieztatu ziren. Txiriboga erdi ilunpetan eta

ia hutsik zegoen, tristezia eta asperraldi aire bat zerion, eta bozgorailuetatik identifikatu gura izan ez nuen ska doinu zaharkitu bat entzuten zen.

Josuk edariak eskatu zituen, eta nik, inork agindu gabe, komunetara jo nuen berriro, lan apur bat egitera. Txandaka pasatu ginen handik. Josu komunetik atera zenean, begiak gorrituta zeuzkan, eta aurpegiko giharrak tentsioan, esfortzu handi bat egiten egongo balitz bezala. Trago handia kendu zion gin tonic-ari, isilik gelditu zen une batez, abiada hartzen egongo balitz bezala, eta, orduan, berbetan hasi zen, amaigabeko jarioan: ETAk armak uzteko erabakiaren kontra, ezker abertzalearen estrategia berriaren kontra, sindikatuen kontra, langileen kontra, langileek ere erruaren zati handi bat bazeukatek-eta motel, hik zer uste duk ba, aburgesatu egin dituk, burgeskume ostia batzuk besterik ez dituk, ez, ez, txarto esan diat, burgeskume izan nahi ditek, eta hori okerragoa duk, txo, eta oraingo gazteak, zer esaten didak oraingo gazteez, hori laostia duk, nintendoa besterik ez ditek buruan, hau pikutara joan duk, txo, pikutara, ez duk borrokatzeko gogorik gelditzen, inork ez dik borrokarik egin nahi, eta ni gero eta gogaituago nengoen erretolika hura guztia entzuteaz

Zerbait erantzun nahi izan nuen, baina hitzak trabakatu egiten zitzaizkidan garunean, gaizki oiloztatutako pistola baten balen antzera. Kokainak horrelakoak egiten dizkit. Josuk gero eta ozenago, gero eta haserretuago ziharduen, egurra goian-behean munduko saldukeria eta traizio guztien kontra. Azkenean lortu nuen hitzek garunetik mingainerako bidea egin zezaten eta tupustean bota egin nion:

-Baina hik ze ostia diok, hauteskunde igandeetan Madriletik hona botoa ematera etortzeko gauza ere ez haiz eta?

Gorrotzko begirada zuzendu zidan.

-Botoa? Botoa? Horixe baino ez duzue buruan, botoa? Hi, botoak baino gauza garrantzitsuagoak zeudek!

-Egongo ez dituk, ba? Jakina! Eta gauza garrantzitsuago horietatik hik zein egiten duk, bada?

-Nik? Nik ez diat ezer demostratu beharrik! Nik nire garaian gaurko berrogei gaztek baino gehiago egin diat, eta hik badakik hori!

-Bai, bazekiat. Eta horrek orain mundu guztiaz gaizki esaka aritu eta potrojorran ibiltzeko baimena ematen dik, antza.

Ez nuen iristen ikusi. Josuren ukabilak nire masailezurraren kontra talka egin zuen eta atzera bultzatu ninduen, baina zorura bota gabe. Hori pelikuletan baino ez da gertatzen. Zut paratu nintzen, Josuri begira, gertatutakoa sinetsi ezinik. Masailean ez nuen minik sentitzen, baina banekien denbora kontua baino ez zela eta handik gutxira mazela guztiz handituta izango nuela.

-Hi burutik hago ala?

Josu begira gelditu zitzaidan, berak ere gertatutakoa sinetsi ezingo balu bezala. Nigana etorri zen, estu besarkatu ninduen eta negarretan urtu zen. Barkatzeko, arren, burua joan zitzaiola, ez zekiela zertan ari zen, nola liteke, ni beti izan naiz bere lagunik onena eta zeini bururatuko zitzaion niri eskua altxatzeko arrazoirik izan zezakeenik, barkatzeko, barkatzeko...

-Aizue, elkar jo behar baduzue, hobe duzue kanpora atzeratzea –esan zuen ordura arte isilik egondako tabernariak.

Besarkada askatu barik eta begiak malkotan zituela erantzun zion Josuk.

-Guk elkar jo? Burua pitzatu al zaik? Jakin ezak hau nire kamarada dela, elkarrekin sekulakoak eta bi pasatakoak gaituk, eta nahiago nitek gure ama leihotik behera botatzea nire bihotzeko kamaradari buruko ile bakarra ukitzea baino. Beharbada hemen norbaiti lixiba astindu behar zaiok, baina kontuz ibil hadi, heu izan haiteke-eta, muturra behar ez den lekuan sartzeagatik.

Bere zereginetara itzuli zen tabernaria, ezer gehiago esan gabe. Besarkada estuagotu zuen Josuk, eta musua eman zidan handitzen hasitako mazelan. Total eginda zegoen. Nire antzera, gutxi gorabehera.

Karrankatik bota gintuzten arte, han egon ginen biok, alferrikako hitz-aspertuan, izan zenaz, izan zitekeenaz eta sekula berriro izango ez denaz berbetan, trago gehiago eskatu eta komunera txandaka joateaz aparte. Kontu zahar ugari aletu genituen: botatako parrandak, maite izandako neskak, manifak, kontzertu gogoangarriak. Tabernariak argiak amatatzen hasi eta handil ospa egiteko eskatu zigunean, zutik egoteko ere lanak genituen. Elkarri oratuta atera ginen tabernatik.

Ilun, huts eta mortu zeuden hiriko kaleak, umeltasun hits batek hartuak. Agur esateko ordua iritsia zen. Hurrengo baterako gelditu behar genuela-eta telefonoz elkarri deituko geniola hitz eman genuen, bi-biok hitza jango genuela ederto genekien arren. Azken agurra, eta nork bere bidea hartu zuen.

Karrankatik nire etxera ordu erdiko ibilbidea dago, baina askoz denbora gehiago igaro zelakoan nengoen etxeko sarrailan giltza sartzea lortu nuenerako.

Etxeko epeltasunak on egin zidan, baina une bateko sentsazioa baino ez zen izan. Gaizki sentitzen nintzen, oso gaizki. Potakarrak bota nituen komunean, eta, gero, egongelako sofán etzan nintzen. Sareta itxien atzetik eguna argitzen hasia zen.

Ohera joan nintekeen, baina alferrik izango zen. Hurrengo orduetan, kokak loa galaraziko zidan, eta horren kontra ezin ezer egin. Itxarotea baino ez zitzaidan geratzen.

Eta orduan iritsi zen hain ondo ezagutzen dudán eta hainbeste gorrotatzen dudán unea, drogaren eragin euforikoa lausotzen hasten denekoa, norbera ere arrastaka eramanez beheranzko bidaia horretan. Laster hasiko ziren zorabioak, damua, dena beltz ikusteko joera, depresioa. Laster hasiko ziren pentsamendu ilunak; Edurneren gomutak eraso egingo zidan errukirik gabe, nire burua madarikatuko nuen berriro ere harekikoa usteltzen eta alferrik galtzen utzi izanagatik. "Bolada batean izorratu samar ibili ninduan, baina dagoeneko pasa duk". Bai zera. Inozo halakoa.

Laster hasiko nintzen galeren zenbaketa egiten. Lapurtu diguten guztiaren inbentarioa egingo nuen, galdutako aukera guztiena, ziria sartu diguten aldi guztiena. Nire buruari galdetuko nion non tronpatu nintzen, noiz hartu nuen okerreko bidea, nik nahi ez nuen lekura eraman ninduen, maite nituen gauza guztietatik urrun. Noiz hasi zen istorioa usteltzen. Noiz gertatu zen iruzurra, zein indar gaiztok eraman duen guztia, lagunik minena zena nigandik urrundú eta urte batzuen buruan erabateko arrotz bilakatuta bihurtzeraino.

Lo egiteko itxaropen guztiak galduta eta sudur zuloak buxatuta banituen ere, jakako poltsikoa arakatu nuen, koka poltsatxoaren bila. Kaka. Orduan gogoratu nuen Josuk egin zituela azken marrak. Seguru asko, kabroiak beretzat gorde zituen drogaren azken hondarrak, niri ezer esan barik.

Izengoitia: SABINO